

607/2024 EBAZPENA, IRAILAREN 5KOA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ DEIALDIA EGITEN DEN ERIZAINA LANPOSTU BAT ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENAREN EDO ZERBITZU-EGINKIZUNEN BIDEZ BETETZEKO OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO ASISTENTZIA SANITARIOKO ZUZENDARITZAN, LEHEN MAILAKO ARRETA KOORDINATZEKO ZUZENDARIORDETZAN, GIPUZKOAKO LEHEN MAILAKO ARRETAKO IKERKUNTZAKO LAGUNTZA METODOLOGIKOKO UNITATEAN.

LANPOSTUA: ERIZAINA.

DESTINOA: Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzako Zuzendaritza Nagusia, Gipuzkoako Lehen Mailako Arretako Ikerkuntzako Laguntza Metodologikoko Unitateko Lehen Mailako Arreta Koordinatzekeko Zuzendariordetzan.

LANALDIA: Zatitua. (Gipuzkoa).

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA:2. HE (derrigortasun-data: 2023/04/13).

BALDINTZAK:(Agiri bidez egiaztatu beharko dira, salbu eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko CV aplikazioan badaude).

Eskatzaile guztientzat:

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako OLTko titulua, Erizaintzako Unibertsitate Diploma edo Erizaintzako Graduak titulua, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoa betez.

Aldi baterako barne-sustapeneko eskatzaileentzat:

- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langile finkoa edo langile lan-kontratudun finkoa izatea.
- Zerbitzu aktiboan egotea eta lortu nahi den lanpostuaren titulazio-maila berekoa edo baxuagokoa den beste kategoriatik batekoa izatea.
- Ez izatea karrerako funtzionario, estatutupeko langile finko edo langile lan-kontratudun finkoko izendapenik Erizaina kategorian, izendapen edo kontratu horrekiko interesdunak daukan egoera administratiboa edozein izanda ere.
- Zuzendaritza Nagusiari atxikita egotea langile finko gisa, Zuzendaritza Nagusiko langileen barne-sustapenaren kasuan.
- Zuzendaritza Nagusia ez den beste zerbitzu-erakunde bati atxikita egotea langile finko gisa, zerbitzu-erakundeen arteko barne-sustapenaren kasuan.
- Kategoriatik bereko lanpostu batean aldi baterako barne-sustapenean egonez gero, egoera horretan urtebete baino gehiago egotea, etenik gabe.



Aipaturiko baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

Zerbitzu-eginkizunetako eskatzaileentzat:

- Osakidetza zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langilea edo langile lan-kontratudun finkoa izatea edo Osasun Sistema Nazionaleko gainerako osasun-zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa edo estatutupeko langile finkoa izatea Erizaina kategorian.
- Zerbitzu aktiboan egotea, eta lanpostuak betetzeko eskaera ez egitea norberak lanpostua jabetzan duen edo zerbitzu aktibora behin-behinean itzultzeagatik atxikita dagoen zerbitzu-erakundean.

Aipaturiko baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

MEREZIMENDUEN BAREMOA (agiri bidez egiaztatu beharko dira, salbu eta CV aplikazioan badaude):

Aldi baterako barne-sustapeneko eskatzaileentzat:

- EPEko oposizio-fasea (gehienez, 100 puntu).
- Lan-esperientzia (gehienez, 80 puntu).
- Euskara:
 - 2. HE: 18
 - 1. HE: 9

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

Zerbitzu-eginkizunetako eskatzaileentzat:

- Lan-esperientzia, kategoria honen azken lekualdatze-lehiaketaren oinarrien arabera. (gehienez, 47,5 puntu)
- Euskara:
 - 2. HE: 4,75
 - 1. HE: 2,375

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

ESKABIDEAK AURKEZTEA:

Interesdunek Osakidetza Zuzendaritza Nagusiaren Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidali behar dute eskabidea (Araba kalea 45), beren datu pertsonal guztiak eta Curriculum Vitae dokumentatuarekin batera (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko aplikazio informatikoan baliozkotuta daukatenez izan ezik).

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

LEHENTASUN-HURRENKERA:

Lanpostua betetzeko lehentasun-hurrenkera honako hau izango da:

1. Aldi baterako barne-sustapena Zuzendaritza Nagusian. Sistema hori erabilia ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo atalean adierazten dena erabiliko litzateke.
2. Zerbitzu-eginkizunak. Sistema hori erabilia ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo paragrafoan adierazten dena erabiliko litzateke.
3. Zerbitzu-erakundeen arteko aldi baterako barne-sustapena.

BALORAZIO BATZORDEA:

Balorazio Batzordea osatuko da. Batzordeburua Giza Baliabideen Hautaketako eta Horniketako zuzendariordea edo hark eskuordetzen duena izango da, eta hauexek izango dira batzordekideak: Lehen Mailako Arreta Koordinatzeke zuzendariordea eta Ospitaleko Arreta Zerbitzuko burua eta Teknikari juridikoa (azken horrek idazkari gisa jardungo du).

HAUTAKETA-PROZEDURA:

Balorazio Batzordeak interesdunek behar den garaian eta moduan aurkeztutako dokumentazioa baloratuko du. Aurrekoa ikusirik, proposamena egingo da dagokion izendapena formalizatzeko. Balorazio Batzordeak lanpostua bete gabe utzi ahal izango du, izangaiek eskatutako eskakizunak betetzen ez badituzte.

EBAZPEN HONEN AURKAKO ERREKURTSOAK:

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko zaio Osakidetza Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko irailaren 5a.



GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
Josune Retegi Ormazabal

